

Sei bertsolari handi Igorreko Sanjosetako bertso saioan hilaren 22an

13. orrialdea

Mendiko film onenak Igorren

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako aurtengo Mendi Amesgarriak edizinoan, 2013an Bilboko Mendi Film Festivalen sarituak izan ziran pelikulak ikusteko aukerea izango da. Hilaren 21ean, *Cascade*, *Petit Bus Rouge* eta *Cerro Torre* eta 28an, *High Tension* eta *Messner Der Film*, Reinhold Messner-en bizitza, egongo dira ikusgai. **10. orrialdea**



Lemoako Pelota Eskolearen osasuna sano ona da

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

204

2014ko martiaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Hiru idazlek euskal literatura erotikoari buruz egin eben berba Diman

Edorta Jimenez, Irati Goikoetxea eta Rafa Ugalde idazleak aurkeztu eben martiaren 14an, Txalaparta Argitaletxearen Literotura bildumea Dimako Liburutegian.

Jimenez bildumearen arduraduna da eta berak egin eban horren aurkezpena, Goikoetxeak bilduman dagoan liburu baten pasarteak irakurri ebazan eta Ugaldek euskal literaturan egin diran aipuak emon ebazan jakitera.

Dimako liburutegia herriko lantalde batek ipini eban martxan orain urtebete inguru, lekua auzolanean txukunduta eta eskuratu ahal izan eben liburuakaz. Edorta Jimenez bertan egon

zanean, Literotura bildumako batzuk falta zirala jabetuta, eskeini zituan liburuok. Hau atakia hartuta, lantaldeak euskal literatura erotikoaren inguruko ekitaldixoa antolatu eban.

Igorreko zineklubak barriz, gorputzak, identitateak eta sexualidadeak gai hartzean dabazan hiru saio antolatu ditu. Martiaren 13an, *Hedwig and the Inch* pantailaratu eben eta hamabostaldi honetan, *Tomboy* eta *XXY* filmak ikusteko aukerea egongo da. **8. eta 9. orrialdeak**

Edorta Jimenez Irati Goikoetxea Rafa Ugalde



ARRATIA

Zugatz Egunak

Martiaren 8an hasita eta 22ra arte, zugatzak landatuko ditue umeak eta nagusiak, gure herrietako landa eta parkeetan. Igorren hasi ziran, Olabari ziklo-kros zirkuituan. Hurrengo zapatuan, hilak 14, Diman eta Zea-nurin ospatu eben eguna, Dimo-lagainen eta Saldropon, hurrengo hurrengo, arbolak landatuz. Hurrengo zapatuan, hilak 22, Areatzakoak Pagomakurren eta Lemoakoak San Antolinen landatuko dabez zugatz hostozabalak. **5. orrialdea**



IGORRE

Enplegu Azoka martiaren 20an

Igorreko Udalak, 2013an, Beharbide proiektua abiarazo eban langabezian egozan personai lagunduteko eta herriko enpresak sustatzeko asmoz. Martiaren 20an, Kultur Etxean enpleguari buruzko azokea egingo da. Laneratzea errezteko ekintzen artean, bertan curriculumak jasoko dira, oraingo lanpostuetarako edo etorkizunean hutsik geratu daitezkean lanpostuetarako zenbait profil eukiteko interesa erakutsi daben enpresentzat. **5. orrialdea**

IGORRE

Udabarri Jaia eta moda desfilea

Arratiako Merkatarien Elkartek Udabarri Jaia antolatu dau aprilaren 4rako. Bertan, aurtengo udabarriko kolezino barriak erakusteko desfile bat egingo dabe Kultur Etxean eta bideo batzuk erakutsiko dabez merkatariak. Sari ederrak irabazteko aukerea be egongo da, egingo dituen zozketetan parte hartuta. Ekimen honetan Igorreko hamaika komertzio eta hamar dendak hartuko dabe parte Udabarriko Jai honetan. **5. orrialdea**

BARRIRO ZABALIK!!!! "HERMO" TABERNA-GARAGARDOTEGIA ARTEAKO EKOMUSEOAN

Eguneko menuak eta asteburukoak
Menu bereziak, enkarguz
Armozuak
Pintxoak, tortillak, errazinoak eta kazuelak
Rabak eta ortuko rabak
Especialidadeak: baba-janak eta txarri-ukondo eta saiheski errea
Garagardotegia, apiletik aurrera zabalik

N- 240, GASTEIZERAKO BIDEAN, ARTEAKO URTEKERA.
HERRIKO PLAZA 1, UDALETXEAREN ONDOAN



IGITIE**ANDRAK ETA ELIKADUREA: BIZITZA ETA ETORKIZUNERAKO OINARRIAK (II)**

Andra baseritarrak mundu guztian dagoz, ez bakarrik herrialde txirotuetan. Andra baseritarrak natura kontuan hartuta egiten dau bere lana. Horregaitik badaki neguan lurra udabarrirako prestatu behar daua, badaki hobe dala espezie bardina lursail bardinean ez lantzea eta animalien insumoetatik soberan geratu jakona, konpostau ondoren, ederto jatorkola lurrari, satsa lurrari negu-amaieran bota ezker landareak udan hobeto hazten dira-eta. Eta gauza asko gehiago daki, gizakia egonkor egin zanean, leku baten instalau eta gizartea sortzea ahalbidetu dabezan gauzak hain zuzen be. Eta hori guztia daki bere aurrekoak irakatsi deusielako eta bere

aurrekoai hareen aurrekoak irakatsi eutseelako eta horreek euren aldetik arbasoengandik ikasi ebelako. Eta gauza horreek gaur, zientifikoki frogatutako gertaeretan oinarrituta, nekazaritza organikoaren gako legez identifiketan doguz.

OMCK, Mundu Bankuak eta Nazioarteko Moneta Fondoak, korporazio talde handi batez batera, euskaldun batzuk bame, ezagutza horreek merkaturatu eta nekazaritzako negozioaren multinazionalen eskuetan jarri gura ditue; horregaitik elikadura subiranotasuna ezinbesteko beharizana da mundu justu eta sozialki subiranoa benetan lortu gura badogu. Elikadura subiranotasunaren onena kasu honetan da ez

daua balio esateak "baina nik ezin dot ezer egin, ez daukat boteririk". Guztiz konsumora enfokautako gizarte baten, geurea modukoan, konsumitzaileak (definizioz, gure gizartea osatzen dogun guztiok) bere eskuetan dauka giltzea, abiapuntutat hartuta konsumoa ekintza kontziente bat dala, hau da, geuk aukeratzen dogula zer erosi eta zer ez.

Elikadura subiranotasuna erdies-teko modua, tokiko, hurreko, konsumoa bultzatzea da. Horixe zan orain dala gitxi nagusi zan elikadurarearen merkadua, azokak astero, egunero, beteten ziranean, biztanleriaren zati handi batek oraindino merkataritza-zentrorik inoz zapaldu ez ebanean.

Neoliberalismo ekonomikoaren eta politikoaren funtsezko oinarria konsumoa da eta androk esateko asko daukagu arlo horretan.

Giltzea, nekazarien eta konsumitzaileen arteko itunak egitean dago, gure herri, auzune eta urietan tokiko produktuak, sasoiokak, gure kulturak, alde biantzat prezio justua daukienak eta elikadurareari jagokionez mesedegarriak diranak konsumitzeko batzean

diran taldeak sortzean. Holan, ziurtatuko dogu osasuna konsumitzen dogula eta, horrez gain, tokiko nekazaritza iraunkorra bultzatzen dogula. Guk androk, elikadura subiranotasunerantz goazen heinean, beste herri batzuk be gauza bera egitea ahalbidetzen dogu.

**TELEFONO INTERESGARRIAK****Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Martiazen 17tik 23ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 24tik 30era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 31tik apirilaren 6ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: beginu@topagunea.com

Webgunea: www.beginu.org

Zuzendaria: Inigo Iruarizaga

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.


Maketazinoa: Inigo Iruarizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iratze Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Alderdiak
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Hozka



Egurri, burdinari edo beste gauza bateri egiten jakon jatea, maila edo hagina da hozka (oskía, agoskatuta). Batuaz, koska esaten jako. Adibideak: arotzak ohol bat beste batez ezkontzeko eta ondo kokatzeko ateraten deuslan mailatxo edo haginkadea da; erloju barruan be, makineriaren pieza askok hozkak eukiten dabez, minutuak kontetako esate baterako. Hozka berbeak beste bigarren esangura hau be badau: zuloa. Bideetan-edo denporearen joanean egiten diran botxoak edo toskak be hozkak dira.

ERETXIA

Errespetuz, Berdinu

Errespetuz gobernuz kanpoko erakundea da eta persona transexual eta euren familia edota lagunak osotuten dabe. Orain dala urte batzuk, Euskal Herrian kolektiboari harrerea eta laguntza emon eikion antzeko alkarerik ez egoanez, berau izan zan alkartea sortzearen arrazoietak bat. Izan be, kasu batzuetan egoera hauskorrean dagozan personak dira eta ez dakie nora jo laguntza eske.

Alkartea 2007an sortu zan eta urte berean Eusko Legebiltzarren batzorde batez hasi zan beharrean. Batzordearen beharra Euskal Autonomi Erkidegoko persona transexualen beharizan terapeutikoak hausnartzea zan eta Euskal Herriko LGTB eremuko hainbat alkarerik parte hartu eben. Orduan, konturatu ziran hainbat zerbitzu (osasuna, justizia, hezkuntza, eta abar) hobetu behar zirala eta ondorioetariko bat izan zan Gurutzetako erietean arreta espezifikoa eskeintzeko atala sortzea ebatzi ebela. Izan be, Osakidetzak ez eban persona transexualak artatzeko baliabide nahikorik eta jente askok Bartzelona edo Madrilera joatea beste erremediorik ez eukan. 2009an sortu zan aitatutako atala eta "Unidad de Trastornos de Identidad de Género" lez izentau eben.

Errespetuz-en abantailetariko bat zera da, adin, egoera sozial eta uri/herri desbardinatoko andra eta gizon transexualak eta euren senitarteko eta lagunak parte hartzean dabela. Gainera, diziplina ugariko profesionalak be kolaboretan dabe, hau da, psikologoak, sexologoak eta psikopedagogoak.

2010 urtetik aurrera Errespetuz Berdinu zerbitzua kudeatzen hasi zan. Berdinu Eusko Jaurlaritzak sortutako dobako zerbitzua da eta persona homosexual, bisexual eta transexualai eta euren

JON FERNANDEZ PEREZ

Errespetuz-eko kidea

senitartekoai arreta eskeintzen deutse. Zerbitzu ibiltaria da eta eskaera egin dauan personearen bizilekura hurreratzen gara. Eta atzenik 2011-2012an partidu politikoak Euskal Herriko LGTB taldeakaz batu ziran persona transexualen alde lan egiteko eta 2012an legea egin eben ("Ley 14/2012, de 28 de junio, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales").

Oro har, Errespetuzeko bazkideak EAEkoak dira, baina bai Euskal Herria bai Kantabria eta inguruko herrialdeetako erabiltzaileak be alkarera jotzen dabe arreta bila. FELGTBren (Federación estatal de lesbianas, gays, transexuales y bisexuales) barruan gagozalako. Eta on-line beste herrialdeetako erabiltzailei

be lagunduten deutsegu.

Uste dot 45 bat bazkide izango garala guztira, baina urtean zehar 120-150 persona artatu ohi dira. Gehienak Bizkaia eta Gipuzkoatik datoz eta ikasleak edo langabezian dagozan personak dira. Gainera, euren familiakoak be etorten dira nahiz eta alkarerik ez izan. Hainbat adineko jenteak egon arren, bazkide gehienak 25-45 urte ditue. Deigarria da atzen urteotan gero eta gazte eta haur gehiago (eta euren gurasoak) laguntza eta informazio bila datozala.

Persona transexualen nahia bizimodu arrunta izatea da, eta hori lortzeako euren eskubideak zapalduak ez izatea. Hainbat erronkaren alde burukatu behar dogu, batez be gizartearen ezjakintasunaren aurrean, lan eta osasunaren arloetan. Adibidez, ohikoa da transexualak lana galtzea euren egoerearen barri emotean edo lankide edo nagusiengandik jazarpena sufritutea. Bestalde, haur eta nerabe transexualak artatzeko ez dago osasun eta hezkuntza sisteman protokolorik eta legearen aurrean babes barik dagozanez, egoera hau hobetuteko beharrean gabiz. Askotan eskoletan arazoak dagoz eta irakasle eta gurasoak ez dakie zelan jokatu haur ta nerabe transexualakaz. Azkenik, Espainia mailan diskriminazioa dago, ze probintzia askotan ez dago hemen bezala persona transexualen eskubideak bermatzen dituan legerik edo osasun sisteman artapen zerbitzurik.

Izena eta sexua NAN eta erregistro zibileko artxiboetan aldatzeko, urte biko hormonazioa beharrezkoa da (hormonazioa bizitza osorako da, baina urte bi jarri ditue muga moduan) eta tarte horretan jenteak arazoak daukaz adibidez lana bilatzeko, txartelagaz ordaintzeko, pisua alkilau edo erosteko, eta abar. Bestalde, gure errealidadea zein dan ezagutu arazotea be garrantzitsua da, izan be ezjakintasun handia dago eta jenteak fundamentu bako aurrerexi asko ditu.

LUMATUTEN



JANIRE LOPEZ

Aihen-belarra

Txitean-pitean irakurten dodaz maitasun erromantikoaren inguruko teoriak egunkari eta aldizkarietan. Asko dira, baita, sare sozialetan gaiari buruz hitz egiten dabenak, maitasun erromantikoa XX. mendeko minbizia izango balitz legez. Kapitalismo eta matxismoaren lagun, gizartea baretu eta anestesiatu egiten dauala, indibidualismora garozala, konformismora...

Maitasun erromantikoa *utopia kolektiboa* dala irakuri dot orain dala giti. Idealizazioan oinarrituta dagoan neurian, frustrazioa dakarrela ezinbestean, eta frustrazio hori droga baten modukoa dala. Hau ez da teoria barria, jakina (Pío Barojak sakon egiten eban honen inguruko hausnarketa *El Árbol de la Ciencia* liburuan), baina kuriosoa da zelan aitatzen dan beti *utopia* eta *frustrazioaren* teoria hau, kapitalismoa eta matxismoaren ideakaz lotuta, maitasunaz gabizanean.

Ados nago maitemintzeak eragindako mitifikazioak frustrazio puntu bat badakarrela, berez. Baina, maitasuna utopia hutsa dala esatea gehiegizko jotzen dot. Maitasuna errea-

lidade bat da, maiteminduta egon dan edozeinek bizi izan dauana. Eta maitasun hori garatzen dan heinean emozinoak baretzeko joerea izateak ez dau hasikerakoa utopiko bihurtzen.

Maitasuna behar dogu, gure oraina eta garana gaitzeko beharizana daukagulako. Honegaz, bai, guztiz ados. Baina modu berean behar dogu liburu bat, film bat, musikea zein jolasa. Gure errealidadetik iges egiteko beharizana daukagulako. Eta adiktiboa ei. Beinke. Oso. Eskerrak igeserako askatasun hori oindino be badaukagula.

Maitasun erromantikoa gizartea baretu eta anestesiatu egiten ei dau, indibidualismora garozalako, eta suposatzen dalako bi nahikoa dirala (edo izan beharko leukiela) zioriontsu izateko. Maitasun erromantiko horren kontra dagozan askok, kontrara, maitasuna eregi egin behar dala dinoskue. Guztiz ados. Maitasuna ez da mirariz datoren ezer, maitemintzea prozesu konzientea da eta gogor defendatu beharrekoa, gainera. Baina, zergaitik biren artean? Nork esan dau inoz maitasun erromantikoa eskusiboa behar dauanik? Gizakiak bere ingurukoak hartu-emon behar dau. Hartu-emon emozionala. Eta sexuala. Gizakiak maitemintzeko joerea dauka berez. Gaur egun eregi dogun familia eredu izango da, beraz, izatekotan, eskusiboa eta gizarte-anestesia. Monogamia izango da, izatekotan, konserbazionismora garozana. Ez maitasun erromantikoa. Zure buruari edozein momentutan, edozeineguz eta edozein modutara maitemintzeko lizentzia emoten deutzazunean ez dago eta, frustraziorik.

Ni, oindino be, zure sorbalidan kiribilduko nintzateke, aihen-belar baten antzera. Maite dot eta, zure azala, negu gorriak zauritutako arroz-alea.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

1

Askorentzako izan gaitezke gauza askotan estorbu beste batzuntzat bizi osoan zeregin danen esklabu baia zer garen ta zer balio dogun ere badakigu guzti horri aurre eiteko indarra sobran daukagu.

2

Bizitzen doguz gauzak topera ta bazter guztiek nahasi arazo bako lekuen ere ikusi hainbat desgrazi emakumeak holantxe gara berez jaiotzatik *en si* nik suerte hori eduki dot eta ezin da adierazi.

3

Makillajea ta parfumea lo iteko be aldean aitortu behar da pasatu egiten gara batzutan arean baina hori da gaur egun dauen kompetentzia gurean gu geu borratu eta nor garen pinturaz tapau gurean.

4

Ze goxoa dan karakterduna ta ze bizia lasaia batzuentzako siku izan arren besteentzako alaia guk be aspaldi pasatu gendun pasau behargindun galbaia emakumeok lekua eiteko etorri jaku garaia.

5

Batzuk mediku besteak artzai denean langine finak mundu guztira geure indarrak zabaltzen ze ahaleginak sexuak baino ez ahal dau gehio balio daukagun grinak azken finean horrexegaitik gara denok hain berdinak.

6

Guk bardin bardin jarraitukogu bide honeri ekiten txarto begitu arren be txize binen binenka egiten autopistetan 120ra ta *cuartan* konduziduten ta guzti honen gaineti beti gu geu garena izaten.

BEGI TXINDORRA

Ondo etorria, Marisor! 9 eguneko lanaldi zioriontsuaren ostean, erditu dira andra honeen eskuak: Pili Aranburu, Olga Sanchez eta Natalia Vivar; eta munduratu da Marisor.

Martiaren 8an egin genduan bere aurkezpena: Areatzan hasi eta Arratian zehar ibili zan bera be abortatzeko eskubidearen aldeko pankartak ipinten. Amabitxi Karik ipini deutso izena, eta berak azaldu deuskunez hainbat izenen laburdura da Marisor, kasurako Mari Sorridade, Mari Sorgin, Mari Sortze, Mari Sorkunde...

Ilusionauta gagoz geure kume honegaz, izan dagiala bizitza oparo eta kementsua.

Maite Artabe



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa hagin klinika
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zorobako 101 R.F.S. 21/06

FISIOTERAPIA **Sasobide**
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

IGORRE

Enplegu Azoka beharra bilatzen lagunduteko



Erredakzioa

Hilaren 20an, enplegua topetako azokea egongo da Igorreko Kultur Etxean. Igorreko jenteari enplegua bilatzen laguntzeko asmoa daukan Beharbide proiektua bigarren fasean sartu da eta enpresen beharizantetan oinarritutako lan programearen ostean, enpresari laguntzea emateko eta lana topatzeko aukerak handitzeko antolatu dabe azoka hau. Azokak atek zabalik izango ditu goizeko 11:00etatik, arrastiko zazpirak arte.

Bertan, enpresa eta lan-eskatzailak euren arteko kontaktuak egiteko aukerea izango dabe, beharra topatzea erreztu ahal dauan beste gauza askoren artean.

Eremu bi

Azokea eremu bitan bananduta egongo dala azaldu dau Nadia Maestro Aldalanoak. Baten 2013an egindako lana erakutsiko

da eta 2014an Igorreko Udalak beharra topatzen lagunduteko eskeini-ko dituan tailer eta ikastaroen barri emongo da. Bestean, lan-boltsak egongo dira, "60 lan-boltsa inguru. 55 enpresak curriculumak jasoteko eskatu deuskue, dagozan edo etorkizunean egon daitezkean lanpostuak beteteko" dino Maestrok. Bertara hurreratzen diran igorretarrak euren curriculumak eroan eta izena emon ahal izango dabe interesetan jakiezan lan-boltsan. Azokan bertan informazioa personalizatu jasoteko aukerea be badago, 94 602 62 09 telefonora deituta edo beharbide@aldalan.com helbidera idatzi ezker.

Berbaldiak

Azokan berbaldi bi egongo dira. 12:00etan, inguruko enpresa batek lan merkadua zelan ikusten dauan azalduko dau eta 18:00etan lana bilatzeko tresnen eta gaitasun profesionalen gainean izango da berbaldia.

ARRATIA

Zugatz barriak inguruko landa eta parkeetan

Erredakzioa

Igorren martiaren 8an, Diman eta Zeanurin 14an eta Areatza eta Lemoan 22an, atxurra hartuta zugatz hostozabalak landatzen dabiz herrietarrak eta eskola umeak gure inguruko landa eta parkeetan.

Udabarria hur somatzen danean,

martian, ospatuten da egun hau, baina herri bakotzak aukeratuten dau zein egunetan. Igorren martiaren 8an ibili ziran ume eta nagusiak Olabarriko ziklo-kros zirkuituan arbolak landatzen. Goizeko hamar terdietan batuta, Olabarri eta Orobi batzean dituan landan 50 bat zugatz sartu eben eskolako haur eta

IGORRE

Igorreko dendak udabarriko kolekzino barriak desfile baten erakutsiko ditue

Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkartek (AME) Udabarri Jaia antolatu dau

aprilaren 4rako. Bertan, aurtengo udabarriko kolekzino barriak erakutsiko desfile bat egingo dabe eta bideo batzuk erakutsiko. Desfilera

sartukeran, bezeroak martiaren 4tik aprilaren 4ra arte egin dabezan erosketen tiketak kaja baten sartuko dabe desfilearen ostean egingo dan zozketan parte hartzeako. Bertan, hamaika "opari eder" zozketatuko dira.

Baina ez da Udabarri Jai honetan parte hartzean dabenak sariren bat etxera eroateko eukiko daben aukera bakarra. Zozketearen ostean hiru talde egingo dira pintxopotean parte hartzeako. Talde bakotxa hiru tabernetara joango da, trikitilari batek lagunduta. Tabernan zerbaist hartu ezker, bertan begitza bat emongo jakie, taberna bakotxean kolore batekoa eta gero partaide guztiak Txaparro tabernan batuko dira beste zozketa bat egiteko. Bertan hiru koloreko lazoak dituenak hartuko dabe parte.

Hamaika komertzio eta hamar taberna

Desfilean, Ezkur oinetakoak, Sein dendeak, Cantabriko arraindegia, Galantak, Rekalde Harategiak, Mugarri eta Olaetxe optikak hartuko dabe parte. Horreetako batzuek modelook daukiez desfilea egiteko, eta beste batzuek bideoak egin ditue euren produktuak erakusteko. Holan da, Kantabriko arraindegia, Rekalde harategia eta Galanta barruko erroparen denden kasuan. Guztira Igorreko zazpi dendetako salgaiak erakutsiko dabez desfilean.

Beste denda batzuk kolaboratzaile izango dira Udabarri Jai honetan; Kili Kili umeen denda, Dia autozerbitzua, Enar kirolak eta Aldeiturriaga oinetakoak, hain zuzen.

Atzenik, hamaika komertzio honeezaz gainera, beste hamar tabernak be hartuko dabe parte Igorreko komertzioa bultzatzeko helburua daukan jai honetan. Jubiladuen taberna, Herriko Taberna, Egazkina, Berezi, Rugby, Kukuma, Gau Lora, Ezkina, Itargi eta Txaparro dira tabernak.



gazteak, gurasoak lagunduta. "Lehenengo zuloa egin lurrean, arbola landatu, ondo zapaldu eta bizi barria emon geuntsan Igorren" dino Soraya Lizundia zinegotziak.

Diman eta Zeanurin be hilaren 14an urten ziran herrietarrak basora hostozabalak landatzeko. Dimakoak Dimolagainen landatu zituen, eta Zeanurikoak Saldropon.

Areatzan eta Lemoan 22an

Areatzan Zugatz Eguna hilaren 22an ospatuko dan arren, 15ean "Ume bat, zuhaitz bat" urteroko kanpainearen baruan, 2013an jaiotakoa umeen izena daren zugatzak landatu zituen

herrian. Umeak hazi ahala, zugatzok be haziko dira eta kanpaina honen helburua hurrengo belaunaldiak zugatz garrantziaz sensibilizatea da.

Zugatz Eguneko ospakizun nagusiak 22an izango dira baina. Egun horretarako, Parketxeak inausketa praktikak antolatu ditu, zugatz mantimenturako oinarizko jakintzak zabaltzeko helburuagaz. Zugatzak landatu gura daben areatzazarrak, barriz, hamarretan batuko dira parkean Pagomakurren zugatz barriak sartzeako.

Lemoan be, zapatu horretan batuko dira ume eta nagusiak 10:00etan Elizondon, San Antolinen arteak landatzeko. Hemen landa-

tuko diran zugatzak BaSo aHazuak dokumentalaren egileak emon ditue. Izan be, dokumentala egiteko kofinanziazinoko sarietako bat, arbol batzuk landatzea zan eta horreetxek landatuko dabez San Antolinen.



Igorreko Zugatz Eguna.

IGORRE

Libre Eguna

Erredakzioa

Herriko tabernen auziaren kontra, eta "elkartasunetik konpromisora" lelopean, Libre Eguna egingo dabe Igorren martiaren 22an. Auzi horretan, Audientzia Nazionalan 80 persona inguru epaitzen dabiz eta 100 alkarte zarratuteko arriskuan dagoz, tartean Igorreko eta Dimako Herriko Tabernak.

Holango epaiketetan hartzean diran epaiak "politikoak" dirala eretxita eta "alkartasuna adierazteko inputaduai" hainbat ekimen antolatu dira herri desbardineta Libre Eguna izenpean. Igorreko jaieguna, goizeko 11:30ean hasiko da Herriko Tabernan egingo

dan gosariagaz. Hamabietan, ekitaldia egingo dabe Kultur Etxeko plazan eta ondoren poteoa eta kale animazioa herritik zehar. Bazkaria 14:30ean izango da eskoletan eta gauean, 22:00etan, zuzeneko musika eskeiniko dabe Igorreko Herriko Tabernan.



ARRATIA

Persona nagusien arretarako programea egingo dabe

Erredakzioa

Agintzari kooperatibeak eta Arratiako Udalen Mankomunidadeak persona nagusiei eta euren familiei zuzendutako esku-hartze sozioedukatiboko programea egingo dabe 2014an. Programa honen bitartez, gizarte zerbitzuetako kasuak aztertuko dira arazo familiarri eta senide baxo-txaren bitzta personalean horrek daukazan ondorioari erantzun baliagarriak emon ahal izateko.

ARRATIA

EHUk eta Mankomunidadeak Hezkuntzan praktikak egiteko akordioa sinatu dabe

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeak (AUM), eta EHU-UPVko Irakasle Eskola Unibersitarioak akordio bat sinatu dabe, gizarte hezkuntza, haur hezkuntza eta lehenengo hezkuntzako graduatuko ikasleak praktikak egin daiezan Arratiako eskoletan.

Praktika "honeen bitartez, ikasleak, Euskal Herriko Unibertsitateak gainbegiraturako prestakuntzea jasoko dabe eta holan, jaso dabezan ezagutzak aplikatu eta osatu ahal izango dabez eskualdeko ikastetxeetan zenbait hiletetako praktikak eginda" azaldu dabe Mankomunidadeak.

DIMA

Aurtengo txakolina aurkezteko jaia antolatu dabe Axpe Goikoan

Erredakzioa

Hirugarren kosetxeagaz egindako etxeko txakolinaren aurkezpena egiteko jaia antolatu dabe Axpe Goikoa jatetxean 29rako. Hurreraten diranak aizkorea, jantzea, bertso eta bazkariagaz lagunduko dabe txakolin barriaren dastaketa. Horretarako aurretik izena emon behar da.

Aurtengo txakolin barria, kanape batzuk batera dastatzeko aukerea egongo da 13:00etatik aurrera. Bitartean, Aitzol Atutxa, Iñaki Azur-

mendi eta Floren Nazabal -Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako aizkolari txapeldunak hurrengo hurrengoz hurrengoz dabez enborrak. Ikuskizuna, Andra Mari jantza taldearen jantzak eta bertsolariak osotuko dabe.

Ondorengo bazkarian be zerbitzatu da aurtengo txakolin barria. Menua 40 euroko prezioan izango da: Axpe Goikoa krema makailao zatiakaz, otarrainkaz betetako piperrak, artxo txuletea txingar gainean eta ogizko tostadak. Ostean jantzaldia egingo da.

BEDIA

Agozko ingeleseko praktika ikastaroak arrakastarik handiena

Erredakzioa

46 lagunek emon dabe izena udalak antolatutako hiru hilarik behingo ikastaroetan, 26k ingeleseko praktiketan. Ikastarook herriko bizilagunek emondako idea eta proposamenetatik sortu dira.

Ingeles praktikak edadearen arabera hiru taldetan bananduta egon dira: 4 eta 8 urte bitartekoak, 9 eta 15 urte bitartekoak eta helduak. "Roller-patinajea" ikastaroak "izakera familiarra" daukala dinoe udaletik, eta bertan 12 personak hartu dabe parte.

Lehenengo sorospen ikastaroa eta umeen jagoleai zuzendutako jolasen tailerra, barriz, ez dira gitxieneko inskripzio-kupora heldu eta ezin izan dira antolatu.

BEDIA

Bidegabeko kaleratzea izan dala errekonozidutea gura dabe Incoesako beharginak

Erredakzioa

Plantilla osoari eragiten deuslan enplegu etete EEEn konsulta epea hilaren 10ean amaitu zan. Orain, Incoesako beharginak euren "bidegabeko kaleratzea" izan dala onartutea gura dabe beharginak.

Martiaren 6tik 10era, beharginak lau eguneko itxialdia egin eben Bediako udaletxean, euskal instituzinoen inplikazioa eskatzeko. Ha ta guzti be, ez eben lortu Arantza Tapia sailburuagaz egotea. Erakundeak "beste alde batera begiraturten jarraituten" dabela salatuten dau Pedro Mendo beharginak. Baina Eusko Jaurlaritari inplikazioa eskatuten jarraituko dabela dino. "Gura dogu hau bidegabeko kaleratzea izan dala onartuten dauan txostena Jaurlaritzak epaileari bialtzea" eta horretarako jarraituko dabe burrukan.

Hilaren 10ean, itxialdiaren atzen egunean, Ainhoa Etxaide LAB sindikatuko idazkari nagusia egon zan Bedian burrukeari babesa emoteko.



Bediako konzentrazioa.

Negarran negoziazioetan

Martiaren 1ean amaitu bazan be konsulta epea Negarran, hilaren 21era arte luzatutea adostu eben enpresa zuzendaritzak eta beharginak. Izan be, enpresek 30 behargin kaleratzeko asmoan aldaketa bat proposatu daua azaldu deutso BEGITURI Alvaro Ruiz CCOO sindikatukoak. Enpresek, borondatezko baja eta 59 urtetik gorakoentzako aurrejubilitzinoen bidez arazoa konpontzerik dagoan aztertuko dau.



Axpe Goikoa.

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gabe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Telefono-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avenida Los Chopos, 35 (Naguri) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beko - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Abokatuak
620.57.86.04
aslerbasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

begitu

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Bilbonak: AT, A, BT, B
Lehendakari Agirre 31
Igorre: 94 631 31 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

AREATZA

Aprilaren 11n Areatzara

Areatzan agertu diran kartelak dirala eta honako testu hau heldu jaku erredakzinora.

Miren Urutxurtu

Gogoratzen dot orain urte batzuk "Gran Hermano" dalako telesaioa emoten hasi aurretik zelango misterioagaz iragarten eben: "faltan 7 dias", "faltan 5 dias", "faltan 2 horas"... eta inork ez ekian (nik behintzat ez) zer zan etorri beharrekoa. Ikusle asko eta askori kurosidadea biztu jakun eta alkarrerri galdetuten geuntsan ia zer izango ete zan hori.

Areatzan be, antzeko zeozer dala eta, aztoratuta dabil herria. Orain hilebete, zezeilaren 11n, hain zuzen be, hile bi falta dirala esaten eban kartelez josita agertu zan herria. Fondo baltza eta letra zuri eta gorriak. Beste ezelangoa pista barik. Eta hile honetako egun berean, martiaren 11n, barriro bigarren kartela: "Gaur martxoak 11. Apirilaren 11rako ez egin planik, gelditu Areatzan".

Danon agoetan dabil kontu hau: batzuk broma bat dala, beste batzuk udaletxeak antola-

tutako batzar "tranpa" bat, ume batzuk bildurtuta ia estralurtarrak etorri edo gerrea hasiko dan eta eurak badaezpada etxean geratuko dirala. Urinera joan barik, semeak berak (6 urte-gaz!), aurreko gaubean negarrez zera esan eustan: "amatxu, eta horreek kartelok Mariano Rajoik ipini badauz eta etorten bada Areatzako etxeetara lapurtuten gu plazan gagozanean?". Atera kontuak...

Nik ez dakit zer ete dan, baina Telecinkok egin eban moduan, kartel honek ipini dabenak be herritarren atezino guztia lortu dabe, eta egia esan behar badot, niri zurrumurru batzuk heldu jataz. Bai, susmoak baino ez dira, baina benetan holan bada, ni neu behintzat, aprilaren 11n arrastiko 19:00etan, plazan egongo naz falta barik; lehenengo ilaran egon be. Eta areatza gurtza be han egotea gomendatuten deutset. Ze benetan niri kontau deustena bada, aprilaren 11 erreserbetea mereziko dau.

Ez da izango gutako batzuk "Gran Hermano" bat egitea beste-koa, baina polita eta abersagarria, zalantza barik.



Areatzan agertu diran kartelak.

IGORRE

Oiane Valero eta Jose Mari Uriarte historialariak ikertuko dabe Timoteo Atutxaren biografia

Erredakzinoa

"Euren orain arteko ikerketak daukien kalidadeagaitik, eta egin daben proposamen erakargarriagaitik, Oiane Valero eta Jose Mari Uriarte historialari bizkaitarrak izango dira Timoteo bekaren onuradunak" azaldu dabe Igorreko Udaletik. Valero historian lizentziatua da; Uriarte historian doktore eta filosofia eta letretan lizentziatua. Euskal Memoria Fundazinoak kide dira biak.

Helburu bikotxa dauka beka honek. Alde batetik, Timoteo Atutxaren figura aztertu gura dau, bere historia, militantzia eta heriotzea zelakoak izan ziran argitzeko. Eta bestetik, memoria historikoa landuteko ariketea be bada, hurreko iragana gogora ekarteko balio dauana. "Aurreantzean be, udalak bide hori landuten segidu gura dau, betiko moduan, lilitia alkarteagaz eta Memoriaren Bankuagaz alkarlanean. Gainera, gaur egungo bizikidetzera laguntzeko be, tresna eraginkorra izan leiteke memoria historikoa lanketea".

6.000 euro inbertidu dira bekan. Ordainetan, Timoteoren figura eta orduko Igorreko errealidadea batu beharko ditu ikerketeak.

Bost hilabeteko epea izango dabe horretarako. Asmoa da aurtengo urri bigarrenaren 29rako, Timoteo fusilau eben egunerako, liburu argitalpen bat egitea.

Timoteo gogoan

Timoteo Atutxa Petralanda 1894an jaio zan. Igorreko Uri Buru Batzarreko idazkaria izan zan, eta Igorre ordezkaten eban EAJren Bilboko Sabin Etxean. 1936ko hauteskundeak be berak antolatu ebazan herrian. Frankistak arrazoi horreek erabili ebezen bera atxilotzeko. 1937ko abuztuaren 5ean hartu, eta Bilboko Larrinaga kartzelara eroan eben. Timoteo frankistak fusilau eben urte bereko urri bigarrenaren 29an. Gero Derioko kanposantuan emon eutsien lur.



Atutxaren plakea.

ARRATIA

Arratiako andrak Urrekoatxan

Erredakzinoa

Hogeta hamar andra inguruk hartu eben parte Arratiako Andren IV. Mendi Martxan. Andrak Urrekoatxako tontorreraino eroan eben aurtengo honetan, euren aldarrikapenen ikurra. Martxa hau urtero antolatuten da martiaren 8aren inguruan eta baktokxean Arratiako andra talde edo talde feministaren batek antolatuten dau. Laugarren edizino honetan, Zeanuriko Mazala taldearen txandea izanda, Zeanuriko plazatik urten ziran partaideak eguraldi onak lagunduta Urrekoatxarantz. Bueltea egin eta gero, kantu-potea egin eben herritik.



Martxakoak Urrekoatxan.

ARTEA

Ekomuseoa eta jatetxea eskuz aldatu da

Erredakzinoa

Erretirau ostean, Sabina Igartuaren lekukoa jaso dabe Zeanurin bizi diran eta ostalaritzan esperientzia daukien andra-gizonak. Jatetxea eta museoa bera hartu dabe. Martiaren 14an izan zan berrinaugurazino ekitaldia.

Hermogenes Fradejasek Galdakaon egin izan dau behar oraintsu arte sukaldari lanetan. "Inguuru hau asko gustau jaku betidanik eta taberna honetako bezeroak ginan. Sabinak esan euskunean erretirau gura ebala, ez genduan aukerea pasetan itxi gura" azaldu deutso BEGITURI Maria Angeles Gomezek. Gosariak, pintxoak eta eguneko menuak emongo ditue Ekomuseoko jatetxean.

Baserriaren museoa eta parke tematikoa

Ekomuseoa hemen gitxi ikusten dan museo mota bat izanda be, beste herrialde batzuetan arrakasta handia daukala dino Gomezek. Museoan, baserriko gauzak jaso eta bertako bizimodu adierazoten da.

Jatetxea eta euskal baserriaren museoaz gainera, glaziazinoetatik XIX. mendera arte euskal jentearen historia jasoten dauan parke tematikoa be badago hemen. "Euskal komunitateen bizitza islatzen da bertan. Parke tematikoa daukagu Paleolitoa, Neolitoa eta abar erakusten dauana".



Maria Angeles Gomez.

IGORRE

Komunikazino eta informazino teknologiarik aterateko tailerra

Erredakzinoa

KIT.Lab Komunikazino eta Informazino Teknologien laborategiak dira, hau da sare sozialen komunikazino eta sormen ahalmena ikasteko lantegiak. Hilaren 22 eta 29an, Igorreko Lasarte Aretokan aukerea izango dabe gazteak bertoko euskeran, bideoak sortu eta sare sozialetan zabaltzen ikasteko.

Eskuko telefonoagaz zelan egin minutu biko bideoa bat, hau da, zelan egituratu, grabatu eta editatu eta argazkiak eta soinuagaz historia laburrak zelan kontatu ikasiko dabe parte hartzean dabenak. Baita artelan horreek zelan zabaltu sare sozialetan eta euskarearen mapan. Gainera, eskuko telefonoagaz egindako bideoak, Kmovie lehiaketan parte hartu daikie. Lehiaketa honetan, 12.000 euro bannanduko dira saritan.

Inguuru euskalduna zabalduteko asmoz sortu eban gazteentzako KIT.Lab ekimena Bizkaiko Foru Aldundiak. Tokian tokiko euskeraren inguruko errealidadeak, berezitasunak, ekimenak eta abar, aztertu, hausnartu, adierazo eta sorkuntza barriak bideratzeko gu-neak izateko sortu ziran KIT.Lab laborategiak.



LITEROTURA

Erotismoa literaturan Diman, eta sexualidade dibergenteak zinean Igorren

Artea eta erotismoa edo sexualidadea lotu eta honen inguruko hausnarketea proposatzen daberen hainbat zita egon dira eta dagoz Arratian hile honetan. Bata, Diman. Bertan, Literotura bildumearen aurkezpena egin eben hilaren 14an Edorta Jimenez bildumearen arduradunak, Irati Goikoetxea idazleak eta Rafa Ugalde Dimako idazleak. Beste hitzordua, Igorreko zineklubeko saio bat egon zan martiaren 13an eta beste bi egongo dira 20 eta 27an. Atzen egun honetan, XXY filmaren ostean, Saioa Hernandez sexologo eta bardintasun teknikaria eta Jon Fernandez Errespetuz taldeko kidea egongo dira filmaren gainean berba egiteko. Errespetuz persona transexualen defenza eta integrazinorako alkarte da.



Edorta Jimenez "Poeta madarikatuok" taldekoak Dimako liburutegian.

Erredakzioa

Dimako liburutegiko lantaldeak antolatu eban Literotura bildumearen aurkezpena. Aurkezpenean 25 lagun inguru batu ziran, liburutegia beteteko nahikoa jente. Lehenengotik Edorta Jimenezek hartu eban berbea Txalaparta Argitaletxeak daukan Literotura bildumea aurkezteko eta argitaratu diran liburuaren azalpentxoak egin eban. Literotura bildumea 1998. urtean jaio zan eta 2013 urtean argitaratu eban momentuz bere atzen alea dan *Venusen*

delta. Bilduma honek literaturea, euskera eta erotismoa alkarren eskutik gozatzeko aukerea emoten dau.

Gero Irati Goikoetxeak bilduma horretako *Orgasmus* liburuaren pasarte batzuk irakurri eban. Bera liburuaren egileetako bat da eta bere narrazioaren atal batzuk irakurri eban.

Atzena berbea hartzean Rafa Ugalde izan zan. Ugaldek, lehenengotik euskal literaturan erotismoari buruz egin izan diran aipuen laburpentxo bat egin eban; besteak beste Axularren *Gerotik*

hasi (XVII. mendea), Joannes Haranederren *Gudu Izpirituala* (XVIII. mendea), Frai Bartolome Santa Teresa (XIX. mendea) eta Pako Aristiren *Kappogaz* amaituz (XX. mendea, 1988). Gero, *Relax* liburuak olerkitxoak irakurri eta bertako narrazioen muina azaldu eban.

Amaitzeko, Edorta Jimenezek gogorazo eban Basauriko Euskarabilla alkarteak itxi egin deusala ipuin erotikoen lehiaketa antolatzeari, eta ez legokela txarto besteren batek erreleboa hartzea, gatxa da-eta Literotura moduko

bilduma bateri eustea, eta egi-leak topatzea.

Edorta Jimenez eta Dimako liburutegia

Igazko urrietan, Edorta Jimenezek Dimako liburutegiari egin-dako bisitan, falta ziran bilduma honetako aleak emetoko prest agertu zan. Eta hortik sortu zala auzpezen berbaldi hau egiteko idea dinoe liburutegiko lantaldekoak. Edorta Jimenezen berbetan, "Gotzon Barandiaran, Josu Zabala, Rafa Rueda eta laurok Dimara deitu ginduezan, "Poeta madarikatuok" ikuskizuna emetera. Udal liburutegian izan zan eta, apaletan zer egoan eta zer ez, begira eta begira, Literotura bildumako liburu batzuk ikusi nebazan. Ez egozan bildumako guztiak. Horren harira liburutegian historiaz eta egoeraz galde egin neban. Kontau eustenak hunkiturik, giroak bihotzean jota, faltan ziran liburuak opari neuk emongo neutsezala esan neutsen. Horren ostean liburutegikoak aurkezpenaren aukerea aztertu eben".

Literotura bildumea Txalaparta Argitaletxeak sortu eban Juan Martin Elexpuru idazlearen zuzendaritzapean, "euskal sistema literarioan, literotura erotikuari esparru bat emetoko asmoz". 2006az geroztik da Edorta Jimenez bildumearen arduraduna. Sailak 20 liburu daukaz, nazioarteko literatura erotikoren

klasikoak eta, batez be, euskal idazleen sorkuntza lanak. Horren artean, Dimako alkatea dan Rafa Ugalderen *Relax* liburuak dago. Liburu honetako narrazioak prostituzinoa hartzean dabe gai modura. Ugaldek lau liburu ditu argitaratuta. *Hamaika bizi-modu* (Ibaizabal, 2003), *Gure gerretako heroiak* (Elkar, 2006) *Relax* (Txalaparta 2007) eta *Erreka* (Ibaizabal, 2011). Lehenengo hirurak narrazio liburuak dira eta laugarrena gazteentzako nobela laburra.

Erotismoa literaturan

Ugalderen eretxian, eboluzio handia izan dau literatura erotikoa. Sasoi baten ia azpigenero baten moduan egoan, baina gaur egun erotismoa normalizata dago literatura orokorrean eta nobela gehienetan agertzen dira pasarte erotikoa. "Atzen hamarkada bitan eboluzio handia egon da literatura erotikoa. Lehen baegoan sariketa bat "La sonrisa vertical" izenekoa. Sari handia zan. *Las edades de Lulu* eta hainbat liburu ezagun atera dira hortik. Orduan, beharbada, literaturan ez zan eszena erotiko askorik agertzen eta emoten eban hori aparteko sail bat zala. Gaur egun edozein liburuan agertzen dira eszena erotikoa eta gainera, zehaztasunez deskribiduta" dino Dimako idazleak.

Euskeraz be, beste horrenbeste gertatu da. Izan be, Basauriko Euskarabilla Elkarrekin antolatu dau urte askoan narrazio erotikoen euskerazko sariketa bat. Sariketa hau gaur egun desagertuta dago baina 17 edizino izan eban eta lanik onenak jaso ditu Txalapartak, Literotura bildumako 3 liburuan: *Esku hori!*, *Basa gurinak*, eta *Bero Hezeak*.

Zinea sexualidade dibergenteak erakusten

Zinea, zazpigarren artea, erabiliko dabe Igorren sexualidadearen inguruko gai batzuk azaleratzeko. Persona transexualen eta intersexualen errealidadea erakusteko helburua daukie Igorreko zineklubeko pelikula. Saioa Hernandez sexologoaren eretxian gaiaren gainean "ez dago ezagupenik" eta "aurreretxietan jausi gaitkez". Izan be, sexualidade dibergente honek "ez dira errez ikusten eta ezegunak egiten dira. Sexualidadearen ezaugarri asko intimidatzen geratzen diralako".

946.319.008
658.195.091

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barrutik janzen zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galanta

HERRIKO BENTA

HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (Igorre)
Tel. 94 631 72 56

Agirre

Pellet eta egur salmenta

41090613 (Iker)
iker@agirre.com
Igorreko Industrialea F11-38

Berezitu

Bertan egindako Murriketa dako gogoko Agirrekoak Eskainak hartzen dira

Luburrak Agirre Dantxak, 11
Igorre 48142 Arteak
Telefonoa: 946 331 200
Makila: 946 331 100
www.berezitu.com
berezitu@berezitu.com

Esku hori!

Esku hori! liburuaren hitzaurrea Edorta Jimenezek idatzi eban. Lerrootara ekarri dogu zatitxo bat.

Itxi begiak. Zabaldu zinema baino askoz zaharragoa den pantaila hori. Psikea bezain antzinakoa dena. Garunetako pantaila. Ba, behin begiak itxirik eta pantaila zabaldurik, ea! Esku hori!

Behin eskua hor-hortxe, has gaitezen filmak proiektatzen. Pluralean. Pantaila horretan filma askotako eszenak nahastu, txandakatu, elkar-gainezarri eta abar egin daitezkeenez gero. Norbera baita -irudimena jaun eta andere!- gidoilaria eta norbera proiektoreari atzera eta aurrera eragiten diona. Eskuaren erritmoaz.

Badira garunetako pantailan -eman dezagun norberaren bekokiaren atzealdean dugula delako pantaila- eszena bakar batekin eskuari egundoko azkartasuna eragiteko gai direnak. Eta helburura iristeko badira eszena maratoniak behar dituztenak, hain hurrun dituzte eta gailurrak. Catherine Miller bigarren multzokoen artekoa omen da.

Catherinek *Jour de souffrance* -gaztelaraz *Celos / La otra vida de Catherine M.*- liburuan fantasia luzei buruz aitortu duenarekin bat egiten dut. Dioenez, gazte-gaztearik esku-lanei laguntzeko fantasia luze eta kateatuetan sartu izaten da. Fantasiok errekkurrenteak izaten omen dira, zera, behin eta berriro etortzen zaizkionak eta, sinesten diot, zenbatetan eta gehiagotan etorri are eta korapilotsuago bilakatuz doaz.

Zorionekoa zu, Catherine! Nago eta luzatu, korapilatu eta istorioak kateatu beharrarena, batzuetan bederen, adin kontua ez ote den. Hastapenetan, ene! Zein gutxi behar izaten zuen eskuak psikearen asmora iristeko. Orgasmora. Urteetan aurrera, oster, eszenamontaiak konplexuagoak eta konplexuagoak behar. Nik neuk behintzat. Eta ez da esku fisikoaren kontua, norberen pantailan zer zelan proiektatu, proiektagailuak eskatzen duen esku psikokoarena baino.

Honainokoak, Eskuaren bilakaera nerabegarotik helduarora balizko entsegurako oharrak.

Literotura bildumea

Anais Nin *Venusen delta*
Basauriko Euskarabila Elkarte
Esku hori!

Aitor Arana Luzuriaga *Dorian Gray-ren egiazko erretratua*
Zenbait egile *Orgasmus*
Edorta Jimenez *Stock 13*
Zenbait egile *Desira plazer 68-08*

Rafa Ugalde Iragorri *Relax*
Basauriko Eskarabila Elkarte

Basa gurina
Aitor Arana Luzuriaga *Gay Hiztegia*

Zenbait egile *Lehenengo aldia*
Joao Ubaldo Osorio Pimentel
Ribeiro *Buda zorionsuen etxea*
Juan Karlos Merino Santos
Kondoi urrunak
Basauriko Euskarabila Elkarte
Bero Hezeak
Marques de Sade *Filosofia*

apaingelan
Paddy Rekalde *Sex Abaroa*
Aitor Arana Luzuriaga *Onan*
Juan Martin Elexpuru *Euskal Lizunkeriaren antologia*
Pilar Cristobal *Esku bakarraren irakurtzeko kontuak*
Zenbait egile *Euskal idazleen ipuin erotikoak*
Juan Martin Elexpuru *Arregi Karbelina beltza*

Sanjosetako bertso saioa

Martiek 22, IGORRE

Uxue Alberdi Igor Elortza Onintza Enbeita Unai Iturriaga Alaia Martin Xabier Silbeira



19:00etan Lasarte aretoan

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52

AREATZA
Golkokale
94 608 90 47

Olaetxe
OPTIKA BIZKAI

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibusua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

BOXPAL
618 59 81 71

Pintura lanak
Iturgintza
Instalazio elektrikoak -aberiak
lehoi eta ateen konponketa
Pertsona konponketa
Igeltzerotza
E-posta: boxpalboxpal@yahoo.es

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Esturion, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

MENDIA

"Beste era batera" Alex Txikonen berbaldia Dimako Gaztetxean**Erredakzioa**

Alex Txikon mendizale arratiarrak bere ibilbide guztia errepasauko dau, lortutako gailurrak, huts egindako saiakerak eta etorkizunerako proiektuak, besteak beste, martiaren 28an, barikuan, Dimako Gaztetxean arrastiko 19:30ean emongo dauan berbal-dian. Beronen ardatza da benetako porrota ahalegindu ez izana dala. Topaketea Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu dau, Gaztebizz programearen barruan, Arratiako Udalen Mankomunitatearen laguntzeagaz.



Berbaldiko kartela.

KROSA

Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketan, arratiarrak podiumean**Erredakzioa**

Zornotzako Atletismo taldeak hirugarren egin eban infantil mailan, Laudion jokaturako Euskadiko XXXIII. Eskolarteko Kirol Jokoetako Kros proban. Taldea Zornotzako izan arren, mutilen infantil mailan lau partaidetarik hiru arratiarrak dira: Jokin Totorika, Areatzakoa; Jon Andoni Magunazelaia Areatzakoa, eta Aitor Artaraz Bediakoa. Laugarren partaide, Jon Beobide Zornotzako da.

Laudioko Ellakuri Udal Estadioan eta inguruko berdegunean lau kilometroko ibilbidea egin behar izan eban partaideak. Guztira,

Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako 140 neska-mutil inguruk hartu eban parte krolean.

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak Euskadiko Atletismo Federazioagaz alkarlanean antolatuten ditu Eskolarteko Kirol Jokoak. Jaurlaritzako iturrien arabera Jokin honek maiatzeko atzen astegoienean eta bagileko lehenean izango dabe hitzordu nagusia, Gasteizen. Aurreko urteetan legez, 2.800 gazte alkatuko dira, 20 kirol modalitate ingurutan parte hartu eta ikasturte honetako kirol jokoai amaierara ipinteko.

MENDI AMESGARRIAK

Igazko Mendi Film Festivalen saritutako pelikulak Igorren Ganzabalen eskutik

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Mendi Amesgarriak saioetan, igazko Mendi Tour Bilbao Mendi Film Festival-etik aukeratutako pelikularik ikusgarrienak ikusi ahal izango dira.

Erredakzioa

Martiaren 21ean eta 28an izango dira emonaldiak, Igorreko Kultur Etxean. Guztira, bost film, eta horreetako 4 saria jasotakoak igazko Bilbao Mendi Film Festival-ean

Hilaren 21ean, film labur bi eta luze bat erakutsiko ditue Igorren. *Cascada* izenekoak zabalduko dau Mendi Amesgarrien aurtengo edizinoan. Zortzi minutuko film honek, film labur onenari saria jaso eban. Honen ostean beste film labur bat, *Petit Bus Rouge*. Arratiari amaierara emateko *Cerro Torre* film luzea erakutsiko dabe, 2013 Mendiko Film onenari saria izan eban, hain zuzen be.

Cerro Torre-A Snowball's chance in hell Thomas Dirnhofer-en lehenengo dokumentala da. Patagonian dagoan Cerro Torre mendiak, eskaletako munduko gatxenaren fama dauka. David-ek eta Peter-ek inork egin ez dauana egin gura dabe: eskalada librean eskalau eta erronka hau jasoten dau filmak.

Bigarren saioan, hilaren 28an, ikuslegoaren saria eta zuzendari onenari saria jaso zituen filmak eskeiniko ditue Ganzabalekoak. Ikusentzulegoaren saria *High Tension* izeneko 36 minutuko pelikuleak jaso eban. Honen ostean, *Messner Der Film*, Andreas Nickel-ek zuzendutako pelikula honetan Reinhold Messner-en bi-

zita kontetan da. Messnerrek 14 zortzimilak egin, Everestera oxigeno barik igo, eta Antartida zeharkatu eban kanpoko laguntza barik.

Argazkiak erakusketa gelan
Kultur Etxean be, baina erakus-

keta aretoan, Ganzabal Mendirik Mendi izeneko argazki erakusketea egongo da apirilaren 16ra arte. Bertan, Ganzabal Mendi Taldekoak euren urtekeretan egindako argazkirik ederrenak ikusi daitezke.

mendi tour
Lo mejor de Bilbao Mendi Film Festival-eko Onena

MENDI AMESGARRIAK
IGORRE

21 Martxo Cobas Martxo	Cascada Mendi 2013 Film labur onena Neska zuzendutako Mendi 13 Sports & Adventure Kaping 8 3:00 eskalera / kaskada	28 Martxo Cobas Martxo	High Tension Mendi 2013 Zuzendari onenari saria Premio de Joven Cineasta Mendi 13 Mountaineering 30' 3:00 eskalera / kaskada
	Petit Bus Rouge Sports & Adventure 20' 3:00 eskalera + kaskada		Messner Der Film Mendi 2013 Zuzendari onenari saria Premio de Joven Cineasta Mendi 13 Mountaineering / Alpinismo 100' 3:00 eskalera / kaskada
	Cerro Torre Mendi 2013 Mendiko film luzea Neska zuzendutako Mendi 13 Mountaineering / Alpinismo 100' 3:00 eskalera		

IGORRE KULTURETXEA - LASARTE ARETOA
Ondu / Hora 19:30
SARRERAK DOHAN - ENTRADA GRATUITA

bilbao mendi film festival | GANZABAL | | GANZABAL

Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

* Deitu 649 979 115 telefonora

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



ERRUGBIA

Zekorrek ezinean

Ainhoa Duñabeitia

Zekorrek ez daukie subertea euren alde. Atzenengo norgehiagoka biak galdu dabez. Hilaren 8an Ordiziaren kontra jokatu eben etxetik kanpo. 55-15 izan zan markagailuak erakutsi eban atzenengo emoitzea. Astegoiaren honetan oster, hilak 15, Igorreko San Txisme zelaian izan eben partidua Baztanen kontra. Partidu txarra Zekorrena, markagailua estreinau ezinean ibili ziran, aurkariak barriz 45ean itxi eben. Atzen emoitzea 0-45.

FUTBOLA

Arratiarrak ondo sailkapenean

Ainhoa Duñabeitia

Andrazkoen taldea seigarren postuan dago bosgarrenagaz bardinduta. Hilaren 9an jokaturako partidua galdu egin eben Beasainen kontra, 0-1. Joan dan astegoiaren, hilaren 16an oster, etxetik kanpo jokatu eben eta partidua bikaina egin eben 1-4 irabazita Betiko Neskak taldeari. Hurrengo partidua Urbietan izango dabe Aurrea Vitoria B taldearen kontra.

Gizonezko lehen taldea bosgarren postuan dago 36 puntugaz. Hilaren 8an etxean jokatu eben Urdulizen aurka eta atzenengo astegoiaren honetan, hilak 15, Abantoren kontra jokatu eben. Lehenengo partidua huts eta bat galdu eben eta bigarren binako bardinketea lortu. Hurrengo neurketa etxean izango dabe, Otxarkoagaren kontra.

Gizonezkoen bigarren taldeak barriz, atzen neurketan 3 puntuak lortu ebazan Elorrio B-ren aurka. Atzen emoitzea, 2-0. Hurrengo astegoiaren atsedena izango dabe.

PELOTEA

"Zentzu guztietan esku pelotea indartsu dago Lemoan"

Lemoako Pelota Eskolea aztertutea faltau izan jako BEGITURI eta horretarako Aitor Erauzkingez egon da.



Lemoako Pelota Eskolakoak.

Irati Urien

Aitor Erauzkin Lemoakoak hogetazazpi urte daroaz esku pelotan, eta herriko neska-mutilak entrenetan ditu 2006tik. Beragaz batera Erik Fernandez be ibiltzen da entrenadore beharretan. Pelota eskolea 70. hamarkadatik dabil martxan eta bertako presidentea Josu Aurrekoetxea da egun. Bost urtetik hasi eta hogeta hamalau urtera arte berrogeta hamar bat pelotari dagoz Lemoako Pelota Eskolan. Agerikoa da edade jakin batera heldu ezker mutil askok itxi egiten dabela pelotea, Lemoan oster ez ei da hori pasetan. Lemoan pelotari kopurua mantentzen egiten dabela azaldu dau Erauzkingek. Halanda be konziente da beherakadaxoa egon badagoala. "Ez bakarrik beste kirol batzuegatik, gaur egungo gazterik antxina baino lehen-

go ixten dauelako kirola be bai", dino lemoztarrak. Gauzak holan, inguruko beste herri batzuetako egoereari erreparau ezkerreko kejetako moduan ez dagozala adierazto dau entrenadoreak. Nesketan, bi dira Lemoan pelotan jokaturak dabenak; bata bederatzi urtekoa, eta bestea hamaikakoa. Erauzkingen esanetan, "oso neska gitxi pasetan dira federatu mailara, nik bakarrik ezagutu dot nire bizitza osoan". Momentuz, eskuko modalitatea baino ez dago Lemoan. Oraindino ez dago palako modalitaterik, baina ipinteko intenzinoa daukiela dino entrenadoreak. Behin edade batera helduta neskek esku pelotea ixten dabela errealdade bat da, eta Lemoako Pelota Eskoleak horren aurrean andrazkoai palan jokaturako aukerea emon gure deutse.

Aste osoan zehar, pelotaz eta ume zein gazte betetik egoten

da Lemoako frontoia. 5-14 urte bitartekoak martitzen eta eguenean entrenetan dabe, 16:30etik 19:30era. 14 urtetik gorakoak lau entrenamentu egiten dabez: astelehen eta eguaztenetan prestakuntza fisikoari zuzendutako saio fisikoak 17:00etatik 19:00etara; martitzen eta eguenean saio teknikoak 19:30ean hasi eta bi orduan. Lorpen edo sariak jagokienez, polito dabil lemoztarrak. Sarritan eroan dabe etxera Bizkaiko Txapela maila desbardinetan. Bestalde, igazko urtean irabazi egin eben bigarren mailan bikoteka, eta aurten lehenengo mailara bikote bi igotea lortu dabe. Txikietan Arratia-Nerbioi Txapelketea irabazi eben, igaz be bai. Besteak beste Berria Txapelketea be jokatu dabe; herri arteko Euskal Herri mailako Txapelketa honetara, hirugarrenez konbidatu ditue aurten Lemoakoak. Urrinegi joan barik, pasa dan astean Erik Fernandez txikien entrenadorea azpi txapeldun izan zan Euskal Herriko buruz-burukoan. "Esan leike osasuntsu gabizela atzenengo urteotan -dino Aitor Erauzkingek - bai kadete eta bai jubenil mailan etorkizun handiko pelotariak datozela ikusten da, horretan gabiz".

Profesional izateko amestean, nagusiak txikien espilu
Xabi Galarza, Iñigo Leiza, Ibai Erauzkin... Lemoan badago kanterea. Xabi Galarzak esaterako, klubean entrenetan segiduten dau, umetxoak ikusi egiten dabe, eta besteakz batera erreferente da eurentzat. Aitor Erauzkingek dinoanez, "txikiak entrenamentua amaitu eta euren ostean nagusiak entrenetan hasten dirala ikusten dabe, entrenamentuak aurrera segiduten dauala; eta erreferentzia hori sano-sano garrantzitsua da".

BOLA JOKOA

Arratiako taldeak ezustekorik ez

Erredakzioa



Bolak.

Hiru dira aurten, Eskualdeko Bola Txapelketea jokaturak dabilen Arratiako taldeak. Lemoako Bolo Taldea; Oba, Dimako taldea eta San Kristobal, Igorrekoa. Eskualdeko Txapelketea martian jokaturak da, taldekakoa zein banakakoa.

Txapelketearen lehenengo partean, taldeka, Lemoako Bolo Taldea izan da ondoen joan dana. Izan be, sailkapen orokorraren 4. postua eukan etxean bigarren botaldia egin ostean. Oba, seigarren zan, "espektatiben barruan" eta San Kristobal ez zan ondo hasi.

Banakakoari jagokonean, Lemoako Bolo Taldeko Ibon Manzanedok lidergoa lortu eban lehenengo botaldian, hau idazten dogunean 3. bada be.

Hurrengo botaldia Gisetsan (Zornotza) izango da hilaren 22an eta hurrengo Oban (Dima) 29an.

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetetxeak, herrikoia

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoera
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoera
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarano HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatzeko zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igoera Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiako.zekorrek@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

BERTSOLARITZEA

Arratia finalaurrekoan da BBK Sariketan

Martxan da XXII. BBK Bertsolari Gazteen Sariketea eta martiaren 28an jokatuko da finala Bilboko Kafe Antzokian 19:00etan.

Erredakzioa

Aurtengoan, zazpi eskualdek parte hartuko dabe BBK Sariketan. Eskualdeak Arratia, Bilboaldea, Busturialdea, Lea-Artibai, Ipar Uribe (Eskumaldea), Enkarterriak eta Durangaldea dira. Holan, 50 bertsolari inguruk kantauko dabe aurtengo sariketan.

Eskualde bakoitxeko sei bertsolariak adin maila bitakoak izango dira: A mailakoak hiru, 18 urtera artekoak; eta B mailakoak beste hirurak, 19-24 urte artekoak.

Sariketea Bilboko BBK salan aurkeztu zan eta bertan egon ziran Ione Narbaiza Bizkaiko Bertsotzale Elkarteko eragilea, Juanjo Respaldiza Bizkaiko Ikastolen Elkarteko bertsolaritza arduraduna, eta Arkaitz Estiballes, Bizkaiko Bertsolari Txapelduna. "Taldeak osotzea erreza da, Bizkaian bertsolari gazteak badaki BBK Sariketea sasoi honetan badatorrela, sendotuta dago sariketea transmisioaren orokortasun horretan" esan eban Respaldik aurkezpenean.

Hiru sailkapen saio dagoz, eta bi jokatuta dira honezkeroko, martiaren 11n Lea-Artibai eta Bilbo artekoak egin zan Markinan, Lea-Artibai subertatu zan garaile lehenengo kanporaketa horretan, eta hurrengo egunean Zallan jokatuta zan

Enkarterriak eta Arratia arteko kanporaketea, hemen arratiarrak izan ziran garaile. Atzenengo kanporaketea hilaren 18an da Ipar Uribe eta Busturia artean.

Arratia neurtuko da Ipar Uribe eta Busturiaren arteko sailkapen saioko irabazlearen kontra hilaren 25ean, 11:45ean Igorreko Lasarte Aretoan egingo dan finalaurrekoan. Lehenengo finalaurrekoa Lea-Artibaik eta Durangok jokatuko dabe hilaren 19an Durangon.

Arratia garaile

Zallan jokatuta zan bigarren kanporaketan Arratiak eta Enkarterrik jardun eban aurrez aurre. Arratiako taldeak irabazi eban saioa. Holan, Igorreko finalaurrekoan kantetako txartela eskuratu eban arratiarrak.

Gaztekoen mailan Enkarterriko Ekhiotz Mancisor, Eneko Alda eta Ander Uzelai aritu ziran kantuan; Arratiakoak, ostera, Aitor Asua, Lur Ziarrusta eta Leire Amenabar.

Gazteen taldean, barriz, Asier Alcedok, Beñat Amezagak eta Nuria Cortadak osatu eban Enkarterriko hirukotea; eta Malen Amenabarrek, Irati Astondoak eta Illart Gumuziok Arratiakoak.

Danera, Arratiako taldeak 376,5 puntu lortu zituan; Enkarterrikoak, ostera, 332.

BIDEOKLIPA

"Harro bizi euskaraz Lemoan" bideoklipa sarean

Erredakzioa

Sarean da "Harro bizi euskaraz Lemoan" abestiaren bideoklipa. Lemoako Udalaren facebookean eta vimeon besteak beste, topau daiteke. Bideokliparen grabaketea egiteko herritarak, alkarteak zein norbanakoak, deitu zituan udalak eta erantzuna ona izan zan.

Lemoako 30 alkarte, eragile eta kuadrilak hartu eban parte grabaketan, guztira 400 persona baino gehiago. Gainera, "herritarraz be, norbanako legez, egin zan grabaketea eta bertara 300 persona inguru hurreratu ziran" udal iturrien arabera.

Orain dala hilabete batzuk, Larregi musika talde lemoztarrak eta Iban Agirregoikoa piano joleak, "Harro bizi euskaraz Lemoan" leloari musikea ipini eta kantua sortu eban. Bideoklipa grabatu da gero eta orain ikusgai dago interneten.



LEHIAKETEA

Lemoako III. Narrazino Lehiaketea zabalik

Erredakzioa

Irakurzaletasuna eta sormen literarioa bultzatzeko helburuagaz Lemoako Udalaren Kultura Sailak antolatu dau aurtun be Narrazino Lehiaketea. Lanak aurkezteko epea zabalik dago apirilaren 23ra arte. Lanok euskeraz izan behar dira eta egileak 18 urte baino gehiagokoak. Aurreko edizino bietan 13 lan aurkeztu ziran.

Partaide bakoitxak, gehienez sei folio luze dan lan bakarra aurkeztu ahal dau Lemoako udaltxean edo kultura@lemoa.net

helbide elektronikoan. Idazlanak, izenburua edo izengoitia bakarrik eukiko dabe eta egilearen datuak beste kartazal baten egongo dira.

Sariak

Lau sari bananduko dira. Lehenengo saria 250 eurokoa da, bigarrena 150ekoa eta hirugarrena 100 eurokoa. Laugarren saria Lemoako bertako lanik onenarentzat izango da, 100 euro eta diplomea. Sari-dunen artean bertoko bat baldin badago, herriko 1. saria bertoko 2. onenak eroango dau. Diplomea be jasoko dabe saridun guztiak.

EUSKAL KULTUREA

"Hator Hona", Necochea, Argentinara

Erredakzioa

Martiaren 3tik apirilaren 20ra arte, izena emon daiteke "Hator Hona 2014" proiektuan parte hartzeako. Hamaikagarren edizino da aurtengoa eta 18 eta 30 urte bitarteko gazteak hartu daiek parte Argentinako Necocheako Euzko Etxeak antolatuten dauan ekimen honetan. Garagarriaren 18tik abuztuaren 10era, gitxi gorabehera, izango da aurtengo egonaldia.

Euskera, euskal jantzak, euskal musikea, gastronomia edo euskal

kirolen ezagupenik euki eta horreek munduan zehar erakutsi eta zabaldu gura ezkerok, edo beste herrialde bateko jentea ezagutu gura izan ezkerok, Argentinara joateko aukerea eskeintzen dau "Hator Hona 2014" ekimenak. Hamaikagarren edizino izango da aurtengoa eta aurrekoetan 61 lagunek hartu dabe parte, tartean bost arratiarrek. Izena emoteko eta informazio gehiagorako, jo www.hatorhona.blogspot.com helbidera.



BREAK DANCE

Break Dance Arantzazuko frontoian

Erredakzioa

Martiaren 22an, 18:00etatik aurrera, hasibarrientzako Break Dance Master Class bat izango da Arantzazuko frontoian. Irakaslea, Bboy Malaka, Crazy Hospital break dance taldeko Alex Barreñetxea izango da. Plaza mugatuak dira, eta, izena emoteko 94 631 56 89 telefono-zenbakira deitu behar da. Saioa ordu bete eta erdikoa izango da.

14 eta 29 urte bitarteko gazteentzako ekitaldi hau, Bizkaiko



Gazte bat break dance egiten.

Foru Aldundiko Gaztebiz-ek antolatu dau Mankomunidadearen laguntzeagaz.

MUSIKEA

Arantzazukoak kontzertua antolatu dabe Karabie Gaztetxean

Erredakzioa

Arantzazuko Eleizportaleko Gazte Asanbladak, kontzertua antolatu dau Lemoako Karabie Gaztetxean, hilaren 28rako, gaubeko hamarretan. Bertan, The Jari Flowers, Enkore eta Iseka Rock taldeak egongo dira.

The Jari Flowers bersinoak egiten dauan Arratiako taldeak kantu ezagunak joko ditu, publikoak kantuan eta jantzan egin dagian. Enkore taldeak, barriz, bere disko barria, *Kanala*, aurkeztuko dau eta Iseka Rock Zumaiako taldeak bere rock melodikoa eskeiniko dau. Rock gaua, beraz, Lemoako Karabie Gaztetxean.

DOKUMENTALA

Munich 1962: Isildu egia dokumentala

Erredakzioa

Orreaga alkarteak antolatuta, hilaren 27an Igorreko Kultur Etxean *Munich 1962: Isildu egia* dokumentala eskeiniko dabe. Proiektzioaren ostean, dokumentalean bere testigantzea emoten dauan Joseba Ariznabarretak egingo dau berba.

Europar mobimentuaren edo gerora Europar Batasuna izango danaren hastapeneko mobimentuaren IV kongresua izango da Munichen 1962. urtean. Espainiako ordezkariak kongresua baino egun bi lehenago bere ekitaldi propioa izango dau, Francoren sistemeari alternatiba bat emoteko asmotan, Espainian demokrazia jartzeko helburuagaz. Ordezkariak horretan, euskaldunak be badagoz; erbesteratuta dagozanak, eta baita Euskal Herri harantz joandakoak be.

BERTSOLARITZEA

Sei bertsolari handi Igorren

Erredakzioa

Uxue Alberdi, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Xabier Silveira izango dira aurtengo Igorreko Sanjose-tako Bertso Saioan bertsoan jardungo daberen sei bertsolariak. Bertsozaleak, hilaren 22an, arrastiko zazpiretan daukie zitea Igorreko Kultur Etxean.

Igorreko Udalak eta Arratiako Bertso Eskoleak antolatutako dabe udabariaren ateetan ospatutako dan jaialdi hau. Aurten lehenengo aldiz, parekidea izango da saioa, hau da, gizon beste andra egongo dira taula gainean. Helburu horregaz, gai-jartzaileak be bi izango dira. Parekidetasunaren aldeko apostua egin dabe "irudi-

tu jakulako andren abotsa entzun behar dala hemen" dino Iñaki Iturriotz Arratiako Bertso Eskolakoak.

Puntako bertsolariak

Batzuk barriak dira eta beste batzuk urtero-urtero etorten dira jaialdi honetara. Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren kasua da hau. Euren mailaz gainera, Alaia Martinek 2013ko Bertsolari Txapelketan egindako lan "ezin hobea" eta Uxue Alberdik bertsolari munduan egin dauan genero ikerketa eta ekarpenak azpimarratu gura izan dau Iturriotzek. Silveirak "toke moderno" ipiniko deutso saioari eta Onintza Enbeita bizkaitarraren bertsoak be entzungo dira Sanjose-tako Bertso Saioan.



Onintza Enbeita.

LABURBIRA

Euskerazko ikus-entzunezkoen ekoizpena zabalduko dau Laburbirak



Erredakzioa

Zazpi film labur eskeiniko dira aurtentzen hamaikagarren urtez martxan ipiniko dan Laburbira film laburren zirkuituan. Urtero legez, Euskaltzaleen Topaguneak herriz herriko euskaltzaleen arteakaz alkarlanean antolatzen dauan zirkuitua da, eta 2013 urtean euskeraz sortutako hainbat film labur azpimarragarri ezagutzeko aukerea emongo dau.

Martiaren 14an, ipini zan martxan zirkuitua eta gurean Areatzan eta Igorren egongo da filmok ikusteko aukerea. Areatzan martiaren 28an izango da emonaldia arrastiko 19:00etan Udal Aretoa eta Igorren aprilaren 11n arrastiko 20:00etan Lasarte Aretoa. Herri bietan Zertu Kultur Elkarteak antolatu eta Udalak lagundu ditu proiektinoak. Guztira 30 emonaldi eskeiniko dira, ge-

hienak Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako herrietan. Parisko Euskal Etxean be egongo da ikusteko aukerea.

Laburbiraren bidez Euskaltzaleen Topaguneak euskal sortzaileak egiten daberen ikus-entzunezkoen ekoizpena Euskal Herrian bertan ezagutaraz gura dau eta horretarako herrietako aretoetara gerturatzan ditu, bestela ikusteko gatz izaten diran formatu txikiko beharrek emonaldi batean batuz. Izan be, aurtengo zirkuituan eskeinutako lanetako batzuk nazioarteko jaialdietan sarituak izan badira be, gitxi ezagutzen dira Euskal Herrian bertan.

Zazpi film labur, aniztasuna

Emonaldiak ordu eta laurdeneko iraupena izango dau. Filmen aukeraketea egiterakoan, aintzat hartu

dira beharren kalidatea eta gai zein generoen aniztasuna. Holan emonaldiak bildu ditu oso sarituak izan diran lanak, euskaltzaleen arte baten babesean sortutako filme bat, jaialdi eta zinemaldi desbardinetan estrenatutako lanak edo ikus-entzunezkoen Kameratoia rallyan irabazle izandako lana, besteak beste. Ondorengoak dira proiektutako diran film laburrak: *Abuztua* (Pello Gutierrez), *Aio* (Asier Sustaita), *Euskaldun berriaren esketxa* (Kepa Errasti), *Irudi Mintzatuena Hiztegi Poetikoa* (Aitor Gametxo, Maider Fernandez, Maria Elorza), *Marilyn* (Iñaki Beraetxe), *Plaza bakarra* (Mediaworks 3.0), *Sormenaren bide ezkutuat* (Lara Izagirre).

Hamaika edizino, hamargarren urteurrena

2004ko martiaren 3an egin zan film laburren zirkuituaren lehen emonaldia, hamar urte bete barri dira beraz data haretatik. Ikus-entzunezkoen arloan guztiz finkatu dan zirkuitua da Laburbira eta bere inguruan beste hainbat ekimen be sortu ditu Topaguneak urteotan guztiotan: Kameratoia rallya, Iru-dienea Durangoko Azokako ikus-entzunezkoen gunea eta Benito Ansola sariak.

Aurtentzen be, Laburbira egin ahal izan da tokian tokiko euskaltzaleen arte eta udalai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko zein Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesari esker.

DUNBA

Lauburua, euskaldunen ikurra

Euskaldunak aspaldidanik hartu dabe lauburua eguzkiaren ikur nagusitzat.

Zeanuriko eskolako 5. mailako ikasleak

Euskal Herriko hainbat lekutan lauburua ikustea normala izaten da. Izenak berak dinoan moduan, "lau buru" esan gura dau eta beso kurboak dituan kurutzua da. Baina, zer adieraz gura dau? Nondik etorri jaku?

Esangura desbardinak ditu, baina eguzkia irudikatzeak da esangurarik inportanteena. Beste batzuk be baditu:

- Kreazioaren lau elementuen (ura, lurra, aire eta suaren) adie-

razpena.

- Buru bertikalak andren energiak irudikatzen ditue eta buru horizontalak gizonezkoen energia.

- Bizitza eta heriotzea.

- Unibersoaren energia.

Eta atzen bertsinok hau kontuan hartuta, badago teoria bat galaxien eta lauburuaren arteko loturea adierazoten dauana. Teoria honen dino galaxiak egiten daberen helizeen mobimentua, lauburuak berak irudikatzen daua. Unibersoaren energiak kopietako ete da? Ez dakigu, baina gure arbasoak leloak ez ziran ba.

gudariak zelten kontra burruka egitean transmitidu ebela.

Leku askotan lauburua betidanik erabilia izan da, batez be lekuen babeserako: baserrietan (ateburuetan askotan) kanposantuetan, pelotalekuetan. Baina atzen urteotan modan jarri zan



Jatorriari buruz teoria asko dagoz, ezagunenak hau dino: euskal



Zeanuriko eskolako 5. mailako ikasleak.

eta euskal produktu gehienetan be erabilten hasi zan: eraztunetan, arrakadetan, kamisetetan, dekorazio produktuetan...

Euskal Herrian bakarrik ez da erabilten lauburua, beste hainbat herrietan be erabilten da. Honeetan beste forma batzuk hartzen ditue, askotan lerro zuzenak erabiliz. Hemen daukazue zelan deitzen deusien beste leku batuzetan:

Alemanian: hackenkreuz; Frantzia: croixgammée; Ingalaterran: fylfot; Grezian: euastiké, Asturiasen, tetrasquel eta Cantabrian: Labaro.

AGENDEA

**MARTIAK 18
IGORRE**

Apirilaren 16ra arte, argazki erakusketea "Ganzabal mendirik mendi".

ZEANURI

28tik 30era arte, Suzien Mendi Klubak antolatuta, Astun-era urtekera eskietako. Izena hainbat arinen emon behar da.

SKI-SNOW ASTUN
martxoak 29-30
ETORRI EDUREYARA!

- BUIBOLSA (Urteera Arratziak)
- 2 GAU (Mental Skipass Jera)
- 2 EGUNEN FORAJA
- 2 OXSALI
- AFARIA

PREZIOA: 129 !!

952 753 139
suzienmendi@topagunea.com

**SUZIEN MENDI KLUBA****MARTIAK 19****LEMOA**

Aitaren Eguna dala eta, ludotekan tailer berezia.

MARTIAK 20**AREATZA**

19:00etan, AKKBk antolatuta, zineforuma *El apartamento* (Billy Wilder, 1960). Hizlaria: Jose Angel Rebolledo. Udal Aretoan.

IGORRE

11:00etatik 19:00etara, Enplegu Azoka Kultur Etxean.

20:00etan, zinekluba *Tomboy* (Céline Sciamma, 2011). Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:30ean, Indakeria sexisteari buruzko zineforuma. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

MARTIAK 21**AREATZA**

21:00etan, The Quiet Corner tabernan, Feel Acoustic.

IGORRE

19:30ean Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Mendi Amesgarriak-Mendi Tour 2014. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Uraren Nazinoarteko Egunaren gaineko tailerrak ludotekan.

MARTIAK 22**ARANTZAZU**

18:00etan, Break Dance Master Class. Frontoian.

AREATZA

09:00etan, Zugatz Eguna. Inausketa praktikak. 10:00etan parkean, Pagomakurren arbolak landatzeko.

IGORRE

10:00etan, KIT.Lab, gazteentzako komunikazio eta informazio teknologien laborategia Lasarte Aretoan.

11:30etik aurrera Libre Eguna ikusi egitaraua 6. orrialdean.

19:00etan, Sanjosetako Bertso Saioa. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Igor Elortza, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Xabier Silveira. Lasarte Aretoan.

21:00etan Kantu Afaria San Kristobaleko txokoa. Txartelak Gau Lora eta Rugby Tabernan 20 eurotan.

LEMOA

10:00etan, Elizondon batu San Antolinen zugatzak landatzeko. Zugatz Eguna.

ZEBERIO

18:00etan, antzerkia *Buah txabal!* Plazako ermita zaharrean.

MARTIAK 23**AREATZA**

14:00etan, Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena. Adierazpenaren irakurketea. Giza katearen azalpen eta metro salmenta.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *El caballero Don Laton*. 19:30ean, zinea *La ladrona de libros* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak mendi urtekera. Arbarain (1118 m)-Umandia (1225 m)-Aratz (1445 m).

ZEBERIO


07:45ean, mendi urtekera. Attola-Kakuta (942 m)-Erlo (1026 m)-Xoxote (930 m)-Azpeitia. Aukeran, ibilbide laburragoa: Attola-Xoxote-Azpeitia. Austarrak antolatuta.

MARTIAK 25**IGORRE**

11:45ean BBK Sariketea Lasarte Aretoan. Finalurrea. Arratia, Ipar Uribe eta Busturiaren arteko kanporaketako irabazlearen kontra.

MARTIAK 27**IGORRE**

19:00etan, Orreaga alkarteak antolatuta,

**Garbiñe Ubeda Bediako Irakurle Klubean**

Hilaren 26an, arrastiko zazpiretan, Garbiñe Ubeda (Tolosa, 1967) egongo da *Hobe isilik* bere liburua komentetan hurreratzen diran irakurleakaz. Garbiñe Ubedak Ondarruko Udalak eta Elkar Argitaletxeak antolatutako Agustin Zubikarai beka saria irabazita egin eban nobela hau. Bilaketa baten istorioa da. 1936ko gerran ibili eta gero II. Mundu Gerraren amaieran desagertutako Jose Bermejo aitona miliziano anarkistearren arrastoen bila hasten da biloba Bakartxo. Ezusteko aurkikuntzak eta horreek sortutako zalantzak kontetan dauz eleberriak.

Munich 1962: Isildu Egia dokumentala Kultur Etxean.

20:00etan, zinekluba *XXY* (Lucia Puenzo, 2007). Lasarte Aretoan. Osteen solasaldia Saioa Hernandez sexologoa eta Jon Fernandez Errespetuz taldeko kideagaz.

LEMOA

19:00etan, Mikel Diego historialariaren berbaldia, "Memoria historikoa eta sinbologia frankista". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

MARTIAK 28**AREATZA**

19:00etan, Laburbira. Film laburren emonaldia Udal Aretoan. Zertu Kultur Elkarteak antolatuta udalaren laguntzeagaz.

DIMA

19:30ean, Alex Txikonen berbaldia gaztetxean.

IGORRE

19:30ean Ganzabalek antolatuta, Mendi Amesgarriak-Mendi Tour 2014. Lasarte Aretoan.

19:30ean, hileko atzen barikua, Herrirak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

19:30ean, hileko atzen barikua, Herrirak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

22:00etan, Arantzazuko Elizportaleko Gazte Asanbladak antolatuta, Enkore, Iseka rock eta The Jari Flowers-en kontzertua

Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

30era arte, Suzien Mendi Klubak antolatuta, Astun-era urtekera eskietako.

ZEBERIO

20:00etan, hileko atzen barikua, Herrirak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

MARTIAK 29**AREATZA**

10:00etatik 20:00etara txotxongilo erraldoiak egiteko tailerra.

21:00etan, The Quiet Corner tabernan Te mamas and t'empapas.

DIMA

13:00etan, Txakolin barriaren aurkezpen jaia Axpe-Goikoan.

16:00etan, eskualdeko txapelketako bola botaldia Oban.

IGORRE

10:00etan, KIT.Lab, gazteentzako komunikazio eta informazio teknologien laborategia Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *La herida*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

09:30ean, Parketxeak antolatuta ornitologia urtekera Saldropo inguruan. Barazar mendatean.

MARTIAK 30**AREATZA**

08:30ean, Lamino Mendi taldearen urtekera, Altipitax (1.155 m) "Ixinako bazterrek ezeten". Gidaria: Martin Sagarna. Eleiz portikuan.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Lucius*. 19:30ean, zinea *La herida*. Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daitezke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. ITVa urri lehenengora arte pasauta. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Inigo).

HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA**SALGAI**

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l_laztana@hotmail.com.

EROSI**TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE**

Trikitixa esku soinua erosiko neuke. 653

716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

DANERIK**INGELESEZKO ESKOLAK**

Ingeleseko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Sanjosetako bertso saiorako.

Jose Ramon Ipiñazar (Areatza)
Kimetz Intxaurraga (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La herida* filmarako.


Haritza Iturbe (Arantzazu)
Begoña Amundarain (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Mina adierazoten dau. Majo.
2.- Boroa. Magala. 3.- Kretako mendia.
Ohartarazoteko interjekzioa. 4.- Zaldi-
aulkia. Ernea ez dana. 5.- Einsteinioa.
Pikaboia. 6.- Oso, txit. Betekadea
adierazoteko onomatopeia. 7.- Kaltea.
8.- Ale. Letra bat. 9.- Norbait. Zeozer
erreten danean.

GOITIK BEHERA

1.- Deitura. Birritan, zerren, zeden.
2.- Erdiko bokala. Hauts egin.
3.- Birritan, bor-bor. Futboleko zapata
azpitan dago. 4.- Zeozer sinisten
ez dala adierazoten dau. Hotza
adierazoteko. Irristatzeko enbor.
5.- Andrazkoen izena. Gizonezkoen
izena. 6.- Igarokor. Sufrea.
7.- Oxigenoa. Aztertu. 6.- Oxigenoa.
Mozte. 7.- Esentzia.



Topau kartetan egiteko zazpi joko mota.



A K I M I K O

A
i
t
z
i
b
e
r



begitu
publicidades
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 115
begitu@topagunea.com

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

**BIXER
TABERNA**
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

NAIARA Horts Klinika
Lehendakari Agirre, 10
48140 Igorre
94 631 52 26

seim
Gogoratu leku
barrian gagozala
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKETEGIA
GAY 5 LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARUN HIGAZTARIN
ASIGURUTAN
Salme Arria, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 41 41 - 48140 IGORRE

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: cbras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolas bain ez dago
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unad.a@euskalnet.net

JULEN ZUBERO

Aprilean hirugarrenez lehiatuko da Zubero Titan Desert proban

Julen Zuberok 31 urte daukaz. Luis Zubero handiaren semea da, eta esakereak dinoan lez "nolako egurra, halako ezpala". Lemoakoa hamabi urteaz hasi zuen txirindularitza konpetidutik, Igorren dagoan Arratiako Ziklista Elkarteagaz. Ekinaren ekinaz profesional mailara heldutea lortu eban eta hiru urtean egon zuen Orbea ekipoa. Bizimoduko etapa hori amaitu eta familiak urte askoan euki dauan Bilboko Cidos Zubero dendan behar egiten dau ordutik. Bizikletea be aldatu egin dau orain, kaminokoa itxi eta basokoa hartu dau hankartean. Agerikoa da herrikoak estimadu daukiela, izan be Lemoako Txirindulari Elkarteak 'Julen Zubero Lemoako I. Mendi Bizikleta Martxa' antolatu eben igazko umietan. Txikon Xtrem telebista saioan be agertu da oraintsu. Titan Desert, ziklo-krosa, Apuko Igoerea... danera animetan da. Dendea eukiko dau, baina bere bizikletak ez daukaz saltzeako. Argi itxi deutso becmuri bizikleton txiringak badaukiela bueltak emoten segiduteko asmoa zati baterako.

Irati Urien

Zer sentiduten da askorentzat ametsa dan profesional mailara heldukeran?

Txikitan bizikletan hasi eta helburua gora heldutea da, baina pausuz pausuz zoazenez ez zara konturatuten. Behin gora heldu eta daroazun erutineagaz beste horrenbeste, ez zara konturatuten profesionala zarala. Hori guztia pasau ostean, etxean zagozanean konturatuten zara egin dozuzan urte guztiakaz, noraino heldu zaran. Profesionalen maila hori amaitu egin zan, eta etapa baten moduan ikusten dot, esperientzia bat.

Luis Zubero da zure aita. Erantzukizun moduko bat izan da zuretzat bera bestekoa izaten ahalegindutea?

Ez. Nire aita oso ziklista ona izan da. Ez

dot sekula be presinorik euki beraren besteko mailara helduteko. Gainera, sekula be ez nau denrigortu, ezta ezer exijidu. Lagundu, beti. Orain be denda egiten dot behar, baina karreraren batera edo animau ezker aprobetxatuko eta joateko esaten deusta eta bera geldituten da denda.

Zure ibilbideak bere denporetako oroitzapenak ekarriko deustaz burura.

Beinke! Gustau egiten jako bere semea hor dabilela ikusteak, eta emoitzak dagozanean ondino gehiago.

Aita-semeak euren artean konparau dagozan baten bat be egongo da, ezta?

Bai, brometan. Denda nagoanean "zure aita laostia zan eta zu ba bueno..." esaten deuste. Baina hori beti egongo da hor. Bere denporetako ekiporik onenean egoan aita, Kas

taldean. Sei-zazpi urte egin ebazan profesionalen mailan, nik hiru eta ekipo normaltxu bat dan Orbean. Profesional mailan ez naz bere erdira be heldu.

Aldaketea gogor egin jatzun profesional izateari itxikeran?

Ez. Momentu hori heldu arte disfrutau egin neban. Egia da gehiago segidutea guragoko neba, eta orain be segidutea gustauko litxakit baina amaitu egin zan. Ahalegindu nintzan zeozer topetan baina ez zan urten ezer. Amaitu eta ia segiduan denda hasi nintzan beharrean, gustura.

Titan Desert-era joaten zara. Zer da eta zelango emoitzakaz bueltatu zara Marokotik?

Sei eguneko karrera bat da, desertuan. Gitxi gorabehera Paris Dakar-a lez da baina bizikletan. Aurten hirugarren urtez joango naz, aprilaren amaieran izaten da. Pasa dan urtean etapa bat irabazi neban, eta jeneralean laugarren gelditu nintzan.

Apuko Igoeran be parte hartu dozu. Zelan joan zan?

Gitxi gorabehera urteko lehenengo karrera izan zan. Zaramillon egiten da, Enkarerrietan. Izatez heri-martxa bat da, baina karrera baten modukoa ia ia. Aurten bigarren egin dot.

Ziklo-krosa be egiten dozu, danean zagoz gero.

Bai benetan be (barre egiten dau). Bizikletea dagoan leku guztietan, hortxe nago. Ziklo-krosa neguan egiten dot.

Alde handia dago kaminioan edo basoan ibili? Zein gurago dozu?

Bakotxa bere denporan. Lehen txikitik halantxi ibilita eta erutine hartuta kaminoko bizikleteagaz ibiltzen nintzan. Orain zein gurago dodan galdetu ezker mendia erantzuten dot. Momentu honetan horixe daukat buruan eta horrexegaz disfrutatzen dot. Trankilago noa, nire eritmorra, ez daukazu kotxerik edo trafikorik... Orain dala bi edo hiru aste hasi da mendiko bizikletearen denporaldia, eta denporaldi horren barruan nago orain, uriak ingurura arte.

Akordetan zara zure lehenengo bizikleteagaz?

Kaminokoagaz bai, gabonetan erregalau eusten.

Zenbat bizikleta daukazuz etxean?

Puf! Ziklo-krosekoak hiru, eta besteak batu ezker zazpi bizikleta egongo dira etxean, seguru. Batean nireak eta besteak aitarenak...

Asko kanbiau dira bizikletak?

Bai. Oraingoak sei kilo daukiez esaterako, lehenengoak zazpi edo zortzi eta

nire aitak korriduten eban denporetakoak, izan leike hamabi kilo eukitea. Diferentzia itzela da. Kanbioak be desbardin, elektronikokoak dira gaur egunekoak. Bizikletea asko aldatu da.

Eta prezioa? Zenbatean topau geinkez bizikletak zuen denda?

Profesionalentzako diran kaminokoak 12.000-13.000 euro balio dabe. Telebisioan ikusten doguzanak dira horreek. Halanda be prezio guztietakoak daukaguz, 200 eurotik hasi eta 13.000ra arte.

Jenteak erosten dau?

Asko jota 8.000 eurokoa erosten dau. Behin urteakaz hobetuten joan ezker, atzenean 12.000koa geldituten jatzu baina hasikeratik karuena ez da erosten. Orain ez behintzat. Lehen igual urtean bat etorten jatzun esanez, adibidez "Movistarrek daukan bizikletea gura dot", eta horrek bizikleteorrek 10.000 euro balio ebazan.

Karreradun egun baten zer armozetan dau Julen Zuberok?

Normal, bardin deutso karrera euki zein ez euki. Nesquik, gailera batzuk eta listo. Dieta bat daroat, baina normala, aparteko ezer ez. Gero egia da, Titan Desert-en moduko karrera luze bat egin behar izan ezker, desbardin jan behar dala, baina bestela ez. Profesionalen nengoanean presino gehiago eukiten neban. Orduan bai jagon behar izaten ginala; armozetako igual pasta apur bat, arroza edo... Bederatzi hiletan fraileen bizimodua zan ha. Hori bai, gero libre eukiten genduzan hiletan topera ibiltzen ginan

danok. Orain ez dot gauza horreetaz ezer jakin gura, egunero normal eta bardin jan gura dot.

Non entrenetan dozu?

Batzutan bizikletan joaten naz beharrean, beste batzuetan bueltatu. Eguerdian Bilbon entrenetan dot, eukiten dodazan ordu biak aprobetxatuko. Entrenamentu gehienak kaminioan egiten dodaz, eta mendian bada San Antolinetik, Mandoiatik edo Gorbeialdetik, entrenamentuen luzeerearen arabera.

Arratiako Ziklista Elkarte segiduten dozu? Ze presentzia dauka txirindularitzeak Arratian?

Ni hor hasi nintzan, Igorren. Arratian badago afizinoa, baina ez dagoz korredore asko. Antxina hamabost ginan kadeteetan eta orain bost badagoz pozik. Nibela nahiko bajatu da. Arrazoi asko egon leike; tartean, kirol hau ez dala bape be merkea. Futbolearen atzenean bota batzuk erosi eta bazoaz entrenetan. Txirindularitza bizikletea, kaskoa, neguko erropea, udako erropea... behar dira.

Beti be bizikleta gainean ez zara ibiliko ba. Bestelako afizinoren bat?

(Barre egiten dau) Ia dana da bizikletea nire egunerokotasunean. Ez naz askotan joaten baina peskan joatea be gustetan jata. Eskia ez dot praktikatzen baina ikusi bai. Orokorrean kirolak gustetan jataz, Athleticen partidua ikusi zein esku pelotako bat, ni gustura. Bestalde, bizikletan ez nagoanean gurago izaten dot etxean trankil egon edo mendira joan.



www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

